

[b]

**BARREN**

ELGOIBARKO ASTEKARIA

527. zka.  
XIII. urtea  
2005eko apirilaren 29a

Maiatzak 3

**Prentsa Askatasunaren Eguna**





# Gremioen GIDA



## Aroztegiak

### Biena

Neurrira egindako lana  
Ermuaranbide, 16  
☎ 943 74 31 16

### Etxekit

Erreformak-proiektuak  
Antonio Arrillaga, z/g  
☎ 943 74 43 47

### Garcia

Aluminioa eta PVCa  
P. Muguruza, 30  
☎ 943 74 32 38

### Imar

Erreformak  
☎ 943 53 14 71  
☎ 646 90 55 64  
☎ 609 05 49 78

### Lodoso

Leihoak  
Sigmako industrialdea  
Xixilion 2-2. pabilioia 3. zenb.  
☎ 943 74 34 90

### Soraluze

Leihoak-Armairu enpotratuak  
Santa Ana, 8  
☎ 943 74 36 34

### Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak  
Santa Klara, 10  
☎ 943 74 05 47



## Isolamenduak

### Glas Control S.L.

Olaso 27, 47. pabilioia  
☎ 943 74 30 94



## Iturgintza, gasa, berogailua, eguzki energia eta klimatizazioa

### Angel

Santa Ana, 5  
☎ 943 74 17 61  
☎ 689 04 92 06

### Ongi

Olaso Poligonoa,  
15-68 pabilioia  
☎ 943 74 28 80

### Pagoaga

San Antolin, 13  
☎ 943 74 02 79

### Tellabide

Azpilgoeta, 19 MENDARO  
☎ 943 75 50 62  
☎ 607 75 50 62

### Zaldua

Urasandi, 26  
☎ 943 74 05 30

### Zubizarreta instalazioak

Ubitarte, 5 behea  
☎ 943 74 07 89  
☎ 650 58 61 44



## Igeltseritza

### Antonio Markez

Urasandi, 24  
☎ 943 74 34 18

### E. Arandia

Urasandi, 17  
☎ 605 70 52 04



## Elektrizitatea

### Aramar

Morkalko, 1  
☎ 943 74 12 80

### Azpeleta

San Frantzisko, 51  
☎ 943 74 12 38

### Urzelai

Santa Ana, 12-14  
☎ 943 74 13 76



## Pinturak

### Biok dekorazioa S.L.

Santa Klara, 26 behea ezk.  
☎ 943 74 15 52  
☎ 606 43 11 19-20

### Ipintza

Foruen enparantza, 4  
☎ 943 74 04 40  
☎ 607 74 04 40



## Indusketa lanak

### Lekunberri indusketak

Indusketa eta indusketa txikiak  
Lekunberri baserria  
☎ 943 74 20 98  
☎ 629 42 56 32  
koldolekunberri@hotmail.com  
www.excavacioneslekunberri.com



IBAN URIZAR

Habemus Mikele!!

Aje bikaina utzi dit Aita Santuaren hiletak, argi dago interes itzela piztu duela Joan Paulo II. aren heriotzak. Katxis! Hor nonbait irakurri nuen, ondorengo Papa beltza izan zitekeela, Nigeriako Francis Arinze kardenala, hain zuzen. Ez ba, "Ratzinger Z" alemaniarra izan da Batikanoko konklabearen erabakia. Enteratu naiz, ordea, beltza ez, baina garai baten Ama Santu bat egon zela.

IX. mendean, Leo IV hil zenean, Juan Anglicus izeneko kardenal bat Aita Santu izendatu zuten, Juan VIII izenpean. Giro aldakorra zegoen eta badirudi Aita Santu berri honek bi urte iraun zituela. Kontatzen denez, gurdian egiten ari zen bidaiara batean, halako batean gelditu, gurditik jaitsi, bide ertzerara joan eta han... erditu egin omen zuen! Juan Anglicus zena, Juana omen zen berez, emakumezkoa, Juana VIII, Ama Juana!! Noski, Vatikanoko duen liburutegi itzela ikusita, ziar giltzapean edukiko dutela hau frogatzen duen guztia. Halere, nik interneten topatu ditut hau dena ilustratzen duten margolanak.

P.D: Hauteskundeek ere ajea utzi die politikoei, Gabonetan ikatza uzten dieten bezala. Bajo Ulloak Airbag filman erakutsi zuen bezala, hemen ere posible da lehendakari beltz bat edukitzea.

## ZOZOAK BELEARI...



MIKEL KORNEJO

Habemus, Ibane!

Zer esango dizut, drag-queenen kontua ez dela hain modernoa, eta sekretuek, partekatuz gero, paper zati batekin bada ere, sekretu izateari uzten diotela.

Ez omen dago entzun nahi ez duena baino gorrakorik, ez eta aldatu nahiz ez duena baino aldagaitzagarik. Eliza, instituzio gisa, Oxi-actionaz betetako kupela zaharra da. Berdin dio zenbat zikinkeria edo kolore ezberdin bota, denak desagertarazten ditu-eta! Beno, agian den-denak ez, baina nork ez du maite kolore puntu bat bere ospakizunean?

Ez dakit Elizak lehen baino botere gehiago ala gutxiago duen, indar handia du behintzat.

Egun hauetan Vatikanoko enteak ikusi ditudanean, hitz bat etorri zait burura: anakronismoa. Komikietan agertzen diren anakronismo erraldoietako bat, lurra gutziz irentsi eta denak Erdi Aro ilunean murgilduko gaituena! Beldurgarria, ezta Ibane?

P.D. Modernitate gutxiago eta abangoardia gehiago!

P.P.D. Eta, Eliza modernizatze aldera, zer iruditzen artzapezpikuz osatutako "Gran Hermano" antzekoa 4.munduko Misoetan? Fedea behar da!

«IX. mendean  
Ama Santu bat  
izan zela jakin  
dut»

IBAN

«Oxi-actionaz  
betetako kupela  
zaharra da Eliza»

MIKEL



MUNDUA MUGITU NAHI DUENAK, LEHENBIZI BERE BURUA MUGITU BEHAR DU



Socrates

## Haize berriak

Zergatik janzten da jendea modu berezi batean zapaturako? Gutxi hausnartu behar da "transformazio" hori helburu jakin batekin egiten dela konturatzeko. Aste barruan eta asteburuetan ez direla pertsona bera izaten esan daiteke eta horren arrazoiak hainbat dira: neskak erakartzeko, atentzioa deitzeko edo desbideratzeko, gustuko dutelako... Azken hauek dira legalenak, izan ere, aste osoan berdin jantzita doaz, onerako zein txarrerako.

Bada, gure Udaletxean ere berdin gertatzen da. Dena dago faltsukeri berdinarene bame. Ekintza baten atzean, interesak alde batera utziz, ustez herriaren ongizaterako diren egitasmoen atzean, beraien ongizatea dago. Merkadilloaren gaiarekin lehenagoko kontu asko ahaztu egin zaizkie. Arrantzaleen pasealekua gaur egun ahateen paradisu da; musika taldeori lokalak emateko urteak gaude zain (eta bitartean hainbeste diru "botata" musika eskola berrian); eskailera mekaniko berria ea noizko dagoen martxan, Plaza Txikiko parke berriaren zuhaitza non dago? Albitxurin, nahiz eta lekurik ez egon, etxeak egin eta egin ari dira,

ez dakit nor diren interesatuak baina etxe zahar asko dago hutsik. Konturatu al zarete aspaldian umeentzat egin dituzten parkeetan EZ DAGOELA ZUHAITZIK? Gaztetxea kontu zahar bezain ahaztua da eta trafikoa Udalaren esanetan ostegunetan dago gaizki baina nik egunero ikusten dut gaizki Guass-eko "rotonda" horren erruz.

Gauza gutxi batzuk dira, gure diruarekin jolasten ari direnek egiten duten guztia kontuan hartuz, baina, ez dakit, sentsazioa daukat herriak haize eta lehentasun ezberdinen beharra duela, garai berriak.

Ez nago inor kritikatzeko, sistema akaso. Ikusten dudana kontatzen ari naiz soilik. Norberak har dezala nahi duen bezala eta nahi duen intentzioarekin.

A.R. 72577915-N

## XII. Jose Gurrutxaga krosa

Ikastolaren izenean, eskerrak eman nahi dizkiegu joan den igandean ospatutako XII. Jose Gurrutxaga Krosa antolatzen lagundu diguten guztiei: Elgoibarko Udala, Udal Kirol Patronatua,

Opel Giauto Elgoibar, Hyundai Mendarero Autoak, Egotoki Elkarte, Mintxeta Atletismo taldea, El Diario Vasco, Eroski Bidaiak, Altzolako Urak, Netto, Antxustegi Zeramikak, Eroski, Telepizza, Etxekit, Lanbroa Kafetegia, Umobitza Aseguruak, Bolintxo, Jai Alai Taberna, Iturri taberna, Castrillejo Estankoa, Goiki Erreformak, Zurich Aseguruak, Aterpe Taberna, Xigortxe Opari-denda, Lete, Julio Bueno ardoak, Fadek Ileapaindegia, King-Kong Kafetegia, Salegi Gozotegia, Gorostiza Liburudenda, Osoro Zapata-denda, Joggers Kirol Arropa, Iriondo Kirolak, Garate Jantzi-denda, Gabi Jatetxea, Astigarraga Kirolak, Iriondo Taberna, Mekanosa, Txiriboga Taberna, Anton Altzariak, Muruamendiaraz Gozotegia, Sara Jantzi-denda, Julene Poltsa eta Osagarri denda, Mugape, Harzubi Jatetxea, Orbea Taberna, Azkue Argazkiak, Txirindulari Lagun Elkarte, Uzuri Optika, Urrategi Elektragailuak, Urkiola Taberna, Gurutze Gorria eta, batez ere, babeslea den Kutxa. Eskerrak, baita ere, parte hartu duten neska-mutilei.

Datorren urteko edizioan ere, apirilaren 30ean, laguntzeko prest egongo zaretelakoan, agur bero bat.

ELGOIBARKO IKASTOLA

E-POSTA

[barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)



BARRENez ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzikizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zkia**.

**[b]arren**

Argitaratzailea:



Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR  
☎ 943 74 41 12 • Faxa: ☎ 943 74 37 04  
Publizitate: ☎ 943 74 37 04  
E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

LAGUNTZAILIA Elgoibarko Udala ZUZENDARIA Jaxone Osoro KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea PUBLIZITATEA Amaia Erkizia MARKETZAILIA Jaione Unanue KOLABORATZAILIAK Uxue Alberdi, Mikel Comejo, Juanito Gorostiza, Amaia Gorrotxategi, Imanol Larranaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Esther Gurrutxaga, Iban Urizar, Kokoa KE, Ururzuno, Unai Villena, Alaitz Vives ESABEA ZAHARRA Gotzon Garateren liburutik INPRIMATEGIA Getxo Koop. E. TRADA 4.300 ale LEGE GORDAILUA SS-1038/92 ISSN 1139-1855



Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.





## KEXAK

- Herritar batek esan digunez, **jendeak ez ditu Udalak jarritako kartelak errespetatzen**: "Pilar Ikastetxetik Txankakuako autobus geltokira bidean lur jauziak izan dira duela gutxi, errepidea ere moztuta egon zen, eta Udalak kartel bat jarri zuen bide horretatik ez pasatzeko. Hala ere, jendeak ez dio kasurik egiten, kartela baztertu eta bertatik ibiltzen da ume eta guzti. Zerbait gertatzen bada, denok Udalaren kontrako kexak jarriko ditugu, baina hori da errazena. Kartelak errespetatzeko jartzen dira."

- Herritar batek esan digunez, **Kiroldegiko dantza gela batean itokinak daude**: "Kiroldegiko dantza ikastaroetara joaten naiz, eta gure gelan itokinak daude. Euria egiten duenean sekulako potzuak egiten dira, eta labaintzeko beldurrez ibiltzen gara. Mesedez, dagokionak konpondu dezala".



## TXALOAK

- Guraso talde batek **Elgoibar Ikastola txalotu nahi du Jose Gurrutxaga Haur Krosa antolatzeagatik**: "Oso ondo pasatu genuen igandean. Plaza Handia jendez gainezka zegoen, haur eta gurasoak bat eginda, eta ikastetxe desberdinetako ikasleak lagunak ziren. Eguraldiak ere lagundu zuen, eta goiz bikaina pasatu genuen. Antolatzaileek txalo bero bat merezi dute. Jarraitu horrela!".

Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

**E-posta:** [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Nafarroa enparantza, 2

20870 ELGOIBAR

☎ 943 74 41 12



**Tel: 943 74 10 11**

- 🏆 IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
- 🏆 ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. **AZTERKETARIK GABE!**
- 🏆 IZENA EMATEAN %10EKO BEHERAPENA

**Gaindi ezazu motorraren teorikoa 16 urte bete aurretik eta autoaren azterketa teorikoa 18 urte bete aurretik!**

*Zatoz informazio eske!*



## URRUZUNOREN Luma

### Argazkia

Astelehena da baina gaur ez du iratzargailuak jo. Gorputzak esnatzeko esan dionean jaiki eta gosaldu egin du, inora joateko presarik gabe. Ez ditu ohi bezala zapatak, alkandora eta erlojua jantzi, armairuan aurkitu duen arroparik erosoenarekin irten da kalera. Egunkaria erosi eta aspaldiko partez plazako jesarleku batean eseri da. Noizbehinka burua altxatu eta alde batetik bestera dabilzan usoei begiratzen die. Ondoren, eguneroko zereginetan dabilzan pertsoneri so egin die. Dibertigarria egin zaio batzuek eta besteek zenbaterainoko antza duten pentsatzea, alde batetik bestera, beraiantzat soilik zentzua duten zeregin errepikakorretan murgildurik. Elizako kanpaiek eguerdia jo orduko abiatu da etxe aldera, zerbait bazkaldu eta telebista aurrean etzateko, lo hartu arte...

Bat batean, iratzargailuak esnatu du. Astelehena da. Amets arraroa izan du bart. Presaka gosaldu eta lanera abiatu da, baina betiko bidetik egin orde, plazatik pasatu da. Oraindik ez dira usoak ageri, baina laster etorriko dira. Irribarre egin eta aurrera jarraitu du. Astelehen bat gehiago.

*Iñigo Otaño*

## [ ZORTZIKO TXIKIAN ]



### GEMMA MONREAL

MARGOLARIA

- **Kolore bat?**  
Berdeek kitzikatzen naute, batez ere, Euskal Herrikoek.
- **Zer koloretan ikusten duzu etorkizuna?**  
Gris xamarra, baina argitzen

saiatuko nintzateke, baikorra izaten saiatzen bainaiz.

- **Nori lagako zenioke zure erretratoa egiten?**

Marcelo Gongora margolari jaendarrari, pertsonaren barnealdea harrapatzeko gaitasuna baitauka.

- **Picassoren "Avignon-eko neskatxak" ala Velazquezen "Meninak"?**

Meninak. Errealismoarekin geratzen naiz.

- **Koadro bat zintzilikatzeko tokirik egokiena ?**

Artistak transmititu nahi izan duena sentitu eta ikusi daitekeen edozein tokitan, berdin dio leku alaia edo tristea izan.

- **Logela edo antzerakoren bat margotzean sena artistikoa ateratzen al zaizu?**

Bai, alaitasun eta argitasun ikutu bat ematen saiatzen naiz.

- **Koloretan ala zuri-beltzean amesten duzu?**

Kolorezkoak, oso errealak. Hain justu, gaur, erakusketarako prestatutako koadroak lapurtzen zizkidatela egin dut amets.

- **Zure lanaz entzun duzun laudoriorik politena?**

5 urteko mutikotxo batek basoko bide bat irudikatzen zuen koadroa ikusi eta "amatxo hortik joango gara" esan zuen.

- **Margotzea gustuko duzuna...**

Karakatetik ikusten diren behe lainoetz maiteminduta nago.

## komikia



*Kokoe 015*



## [AKORDATZEN NAIZ]



**JOSE MARI BETELU**

1932an jaioa

### «Eurua»

**D**iru klase asko ezagutu dittut. Zillarrezko dirua ere ezagutu dot nik. Bi pezetakua eta durua ikusi izan dittut. Durua haundixa zan. Gero, kobrezko dirua etorri zan. Guk txakur haundixa eta txakur txikixa izenez ezagutzen genduzenak kobrezkuak ziran. Gero pezetia etorri zan, hasieran papelezkua, eta gero aluminiozkua. Eta oiñ, eurua. Ondo konpontzen naiz, kalkulak egin bihar izaten dittut, baiña hiru pezetaren gitxi gorabeheriak nahiko ondo asmatzen dot zenbatian nabillen. 100 euro, 16.000 pezeta dirala kontuan hartuta, horrekin moldatzen naiz.

Hori bai, konturau naiz bizimodua zihero garestiitu dala euruan kontu

honekin. Kriston ostikadia izan da guretzat. Langilliontzat sekulako kaltia, eta negoziua edo bankua daukanantzat, txollo bat izan da eurua. Biribiltze danak goraka egin dittue. Gaiñera, zentimua ez da guk ezagutu genduan zentimua: honek bi pezeta balixo ditxu! Oin dendara juten zera, eta lehengo diruakin ez

dozu ezer erosten. Eta kafia ere lehen hogeituro duan zagan, eta oiñ eurotik gora balixo dau!

Golpera 60 pezeta garestiitu zan.

Oingo generazio berriak ez dau pezetarik ezagutuko, eta harek igual ez dira

konturauko zenbat garestiitu dan dana. Hala ere, konturauko dira soldatiakin konparauta bizimodua garestixa dala.



## [GURE BERBAK]

### Esamolde batzuk (2)

Aurrekuan bezela, gaurkuan ere ariketa moduan jarriko dittut esaera batzuk. Amaittu egizuz goiko multzoko esamolde-hasierak beheko multzokuekin. Ebazpenak, azpizan. Azalpenak, hurrengo batian.

- 1 - Burua ez darabilenak ...
- 2 - Deittu egidak txakurra, ...
- 3 - Egon hadi lo, ...
- 4 - Elur urte, ...
- 5 - Ematen ez dabanak ...
- 6 - Gizurak ...
- 7 - Kanpuan uso, ...
- 8 - Kazuak zartagiñari, ...
- 9 - On billa, on billa, ...
- 10 - Sasoian ...

- ... gari urte. - A  
 ... baiña emaidak ogixa. - B  
 ... hankak ibilli bihar. - C  
 ... eta jango dok mehe. - D  
 ... etxian otso. - E  
 ... ipurbeltz. - F  
 ... hartzen lanik ez. - G  
 ... hanka motzak daukaz. - H  
 ... kerixak! - I  
 ... (azkenian) bonbilla! - J

Jesus Mari Makazaga

1-C-2-B, 3-D, 4-A-5-G, 6-H, 7-E, 8-F, 9-J, 10-I  
**EBAZPENAK:**



**MEKANOSA**  
 Errosario, 30  
 Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ PLANOEN BIRREGILEAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



**JOSE pinturak**  
**(Txema)**

**Mota guztietako pintura eta enpapelatuak. Zoluak, moketak, sintasola, kortxoa, etab. jartzen dugu.**

San Bartolome, 28-1 ezk • Tel: 943 74 12 55 • Mobila: 629 44 23 14

# PRENTSA ASKATASUNAREN EGUNA

*Zer eta nola esan izaten da kazetari batek albiste bat ematerakoan gaintitu behar duen azterketa. Informazioa eskuratu, iturriak kontrastatu eta ahalik eta modu objektiboenean idazten saiatzen da. Ez da lan erraza. Kazetariak bere lana ondo egin arren, beti dago albistea gustuko ez duen norbait. Maiatzaren 3an Prentsa Askatasunaren Nazioarteko Eguna ospatuko da, baina existitzen al da benetan prentsa askatasuna? Kazetariak nahi duena idazteko askatasun osoa al dauka? Informazio iturriak zabalik al daude beti? Gai honi buruz hitz egiteko Elgoibarko hiru kazetarirekin elkartu gara: Diario Vascoko Aitor Zabala, El Correoko Constan Nuñez eta Gara eta Deiako Jabi Leonekin.*

### Zer da prentsa askatasuna?

**Jabi:** Bakoitzak bere ideiekin bat doan informazioa jasotzeko aukera izatea. Halere, komunikabide asko pertsona gutxiren esku daude eta iturri berdinetatik jasotako informazioa argitaratzen dute. Beraz, benetan garrantzitsuak diren informazioetan, orokorrean, ez da diferentziarik izaten.

### Constan:

Komunikabideen jabeak beti berdinak dira, beraz, baita aukerak ere.

**Aitor:** Berez denok

daukagu iritzia plazaratzeko aukera baina errealitateak erakusten du horretarako ere dirua behar dela. Hau da, dirua daukanak zabal dezake egunkari bat.

### Nahi duzuen idazteko askatasuna al duzue?

**A.:** Niri enpresatik ez didate esaten zer idatzi behar dudan, alde horretatik libre naiz. Baina idazterako orduan ezin da

**J.:** Egunkarietako arduradunei iristen zaizkidan gaiak aurkezten dizkiet, beraiek erabakitzeke zer gai landu behar dudan eta zein ez. Gai batzuk erredakzioetara iristen dira eta sekzioko arduradunak esaten dit zein ekitaldi edo gairen inguruan idatzi.

### Autozentsuratu egiten duzue zeuen burua?

**A.:** Gaiaren arabera, bai.

**C.:** Nik igartzen dut zentsura nire inguruan, baina ez idazterakoan bakarrik, informazioa lortzerakoan ere bai. Beste modu bateko zentsura da, baina azken finean, presionatuta gaude.

**J.:** Kazetariak esku artean duen gaia eta egoera aztertu behar ditu. Gatazka baten aurrean inoiz ez da argitaratzen ailegatzen den informazio guztia, idatzitakoaren eraginez egoera okertu daitekeelako.

### Heri mailako kazetari izatea zailagoa al da?

**A.:** Dударik gabe! Egunero ikusi behar duzu jendea kalean, denok gara ezagunak, eta presioa izugarria da. Eskerrak oso gutxitan jasotzen ditugu, baina zerbait gaizki esanez gero, sekulako egurra! Batzuk kalean agurtu ere ez naute egiten. Hemengoak gara eta egoera ezagutzen dugu, baina horrek ez du esan nahi informazioa manipulatu egiten dugunik.

**C.:** Artikulu bat idazten dudanean beti pentsatzen dut, "bihar publikatzen denean nola erreakzionatuko du jendeak?..."

**J.:** Alde ona eta txarra dauka. Denok ezagutzen gara eta, alde batetik, oso

«Jendeak ez ditu bereizten mezua eta mezularia»

dena idatzi. Askotan elkarrizketatua oso erretra dago eta sekulako astakeriak botatzen ditu. Norberak kontrolatu behar du jasotakoa nola neurtu eta nola eman.

**C.:** Ni albistea idazten dudanean protagonisten lekuan jartzen naiz. Merkadilloaren inguruko gairen bat idazten ari banaiz, alkatearen lekuan ere jartzen naiz, eta ezin dut edo zer gaur idatzi.





## «Presio piska bat ona da. Gauzak birritan pentsatzen dituzu»

bai nik eta baita zuzendariek ere. Oso haserre deitu izan didate esateko argitaratutako informazioa ez dela egia edo albistearen iturriek beste interesak dituztela salatzen. Zorionez, nire zuzendariek beti izan dute konfidantza nigan.

### Informazioa ukatu zaizue sekula?

**C.:** Bai, Udaletxean adibidez, ez dute informaziorik ematen. Beraiek bidaltzen duten inguruko informazio gehiago nahi badugu, arazo mordoa jartzen digute. Behin Pleno Aretoa zein kolorez margotu zuten galdetzeko deitu nuen udaletxera eta ez zidaten esan!

**A.:** Bai, erakunde batzuetan ez dago informazioa lortzeko batera erraztasunik, eta beraien interesatzen zaiena bakarrik ematen dute. Guillermo Garate alkate zegoenean, ostiralero izaten genuen berarekin bilera, eta berak informazio guztia ematen zigun. Beste harreman bat zegoen, baina ziur hark ere interesatzen zitzaion informazioa ematen zuela.

**C.:** Dena dela, uste dut Gilermo Garatek Diario Vasco erabili egiten zuela. Guk ez genuen hainbeste informazio lortzen.

**J.:** Batzutan isiltasunarekin erantzunez... asko esaten da.

### Egin eta Egunkariaren itxiera nola bizi izan duzue?

**A.:** Neurri handi batean interes politikoak egon ziren honen atzean. Beste gauza batzuk idatziko

balituzte ez lituzkete itxiko. Konfliktuaren ondorioak dira.

**J.:** Egin-eko kolaboratzailea nintzen itxi zutenean eta ondorioa argia dela uste dut. Benetako estatu demokratiko batean holako ekimenak ezin dira, inolaz ere, justifikatu. Nik ez nuke erosiko ABC, La Razon edo mota horietako prentsa, baina uste dut merkatuan egon behar direla, bakoitzak nahi duen erara informatuta egoteko aukera izan behar du. Dena estrategia kontua da, indar politiko eta ekonomikoei traba egiten dien ahotsa isiltzeko nahiak prestatua.

### Bukatzeo, Elgoibarren ba al dago prentsa askatasunik?

**C.:** Prentsa Askatasuna informazioa lortzeko erraztasuna, eta idazterakoan presiorik ez edukitzea baldin bada, ez.

**A.:** Badago, baina jendeak beldurra dio prentsa askatasunari eta informazioa kontrolatzea nahi izaten du.

**J.:** Beste leku guztietan bezala, prentsa askatasunik ez dago gure herrian.



## «Haserre deitu izan didate albiste bat gezurra dela esanaz»

erraza da herritarrentzat interesekoa den asunto baten aurrean inplikaturako alde guztien ahotsa jasotzea. Bestetik, hurbiltasunak presioak sortzen du.

### Nondik sentitzen da presio hori?

**A.:** Alde guztietatik, kirol elkarteetatik, politikatik... Beraiek nahi duten moduan ez baduzu tratatzen gaia, denak haserretzen dira. Merkadilloaren gaiarekin alde bietatik entzun behar izan dut, denen gustua egitea oso zaila da.

**C.:** Nik, halere, eskertzen dut presio pixka bat. Azken batean, presio horri esker bi aldiz pentsatzen dut zer eta nola idatzi.

**A.:** Bai, baina, era berean, jendeak ez ditu bereizten mezua eta mezularia. Zuk argi eta garbi jartzen duzu zer nork esan duen baina, halere, irakurle askok uste du zure iritzia ere hori berau dela.

**J.:** Presioa batez ere botere ekonomiko eta politikoetatik dator. Enpresa eta agintari politiko askoren deiak jaso ditut,

## [ PROTAGONISTA ]



Mikel **Olaizola**

Mikel Olaizola elgoibartarrak Sabino Arana Bertso Paper lehiaketa irabazi du. Sei bertotan munduari buruz daukan ikuspegi konkretua azaldu zuen Mikelek, eta bere mailan, bera izan da irabazlea.

Elgoibar Ikastolako DBH 2. mailako ikaslea da Mikel Olaizola, eta betidanik gustatu izan zaio bertolaritza. Duela bi urte hasi zen Ikastolako Errazu Bertso Eskolan bertolaritza ikasten, eta iaz, Euskal Herriko Bat Bateko Bertso Lehiaketa finalean hartu zuen parte Mungian. Dudarik gabe, bertsolari sena dauka mutil gazte honek. Zorionak!

## [ NOTIZIA ]

### Maiatzaren 12an azoka Plaza Handian jarriko dutela esan du Elgoibar Bizirik

**E**lgoibar Bizirik Plataformak herri bilera egin zuen astelehenean, herritarren artean merkadilloaren gaiaren inguruan zer egin daitekeen aztertzeko. Bertara hurbildu zirenek beren ideiak bota zituzten, eta datorren maiatzaren 12an merkadilloa Plaza Handian jartzea erabaki zen.

#### Irtenbide "txapuzeroa"

Azokako merkatariek adierazi zuten, merkadilloa Trenbide kalean jartzea irtenbide "txapuzeroa" bat da: "Plaza Handitik kendu gaituzte trafiko arazoak sortzen direlako, eta Trenbide kalera eraman nahi gaituzte. Hemen trafiko arazo handiagoa sortuko da". Elgoibar



Bizirikokoek San Roke auzokoekin hitz egingo dute lehen bailehen. Beraien ustetan, Trenbide kalean jarri San Rokeko bizilagunak azokako saltzaileen kontra jarriko dira, eta argi eta garbi azaldu nahi diete Trenbide kalea Udalak proposatutako tokia dela.

## [ ZENBAKIA ]

# 6

Makina Erramintaren hiribura dela esaten zaio Elgoibari. Gaur egun 6 industrialde daude gure herrian eta guztira 223 enpresa: San Antolinen 6, Arriagan 15, Ibañarten 18, Lerun industrialdean 4, Sallobente auzoan 5, eta, azkenik, industrialderik oparoena Sigma-Olaso, bertan 175 enpresa daude. Albitxuriko industrigunea ere eraikitzen ari dira eta jada bada bertan pabilioia erosi duen enpresarik ere.

## asteko [ ARGAZKIA ]



Zirkoa izan dugu aste honetan Elgoibarren. Aspaldian ez genuen gure herrian honelako ekitaldirik ikusten. Ikuskizun polita, benetan! Pailazoak, animaliak, malabaristak... denak batera bildu dira Xixilion Plazan jarritako karpa handi baten azpian. Guraso eta seme-alabak eskutik emanda hurbildu ziren zirkoa ikustera, batzuk txikitako oroimenak gogora ekartzeko, eta beste batzuk lehenengo aldiz zirkoa zer den ikustera. Denak gustura atera ziren, eta etxeko txikiak aho zabalik gelditu ziren zirkoarekin.



## Agenda 21 egitasmoak herritarren partehartzea bultzatu nahi du



**T**okiko Agenda 21 egitasmoa 2002an jarri zen martxan Elgoibarren. Orduetik hainbat ekintza burutu dira eta 2004an herriaren diagnosia egin ostean, jendearen partehartzea bultzatzeko foroen txanda da orain. Foroak kontsultarako dira, martxan dauden egitasmoen berri eman eta proposamenak jasotzeko. Martxoaren 15ean elkartu zen azkenekoz Foroa eta bertan taldeka egin zuten lan, ura, ingurune naturalak, hondakinak eta beste hainbat gai aztertuz. Tokiko Agenda 21 Rio de Janeiron sortu zen 1992an. Garapen Iraunkorra edo

jasangarria du helburu. Hau da, ingurumena babestea eta errespetatzea, hazkunde ekonomiko orekatua ematea eta gizarte mailako zuzentasuna eta justizia lortzea. Horretarako, ondoko urratsak eman behar dira: herriaren diagnosia egin, ekintza plan bat prestatu, plana martxan jarri, jarraipena eta ebaluazioa egin eta herritarren partehartzea bultzatu. Elgoibarren Agenda 21 dinamizatzen ari direnek bereziki azpimarratu dute herritarren partehartzea eta dei egin dute hurrengo bileretara ahalik eta jende gehiena hurrera dadin.

### Jose Mari Lasa eta Lander Agirregomezkorta Elgoibarko Izarraren Bazkide Kanpainako zozketako irabazleak



Lander

Jose Mari

58 bazkide berri lortu ditu Elgoibarko Izarrak bere bazkide kanpainan, eta horien artean, Arantzako (Nafarroa) aterpetxean bi lagunentzako asteburua zozketatu da. Irabazlea Bilbon bizi den Jose Mari Lasa elgoibartarra izan da. Bestalde, bazkide izateko hamaika arrazoi daudela aipatzen zuen Elkarteak. 10 arrazoi diptikoan idatzita zeuden, eta hamaikagarrena eman zutenen artean Elgoibarko jateke batean bi lagunentzako jatordua zozketatu da. Kasu honetan Lander Agirregomezkorta izan da irabazlea, eta berak aukeratuko du jateke. Zorionak bioi!

### [ MOTZ-MOTZIAN ]

**Biluzik zerbitzua asteazkenetan**  
Biluzik Sexologia Zerbitzua asteleheneetik asteazkenetara pasada. Maiatzaren 11tik aurrera, sexuaren inguruko kezka, zalantza edo galderaren bat dutenak, asteazkenetan hurreratu ahal izango dira Kultu Etxeko bulegora eta Eli Morenok argituko die dena. ordutegia, 16:30etatik 20:00etara. Gazte Informazio Bulegoa, berriz, astelehen-astearte eta ostegun-ostiraletan, 16:00etatik 19:00etara dago irekita.

### Helduen Eskolarako matrikulazio epea zabalik

2005-2006 ikasturterako aurre matrikulazio epea zabalik dago Helduen Eskolan. Besteak beste, alfabetatzea, atzeritarrentzako ikastaroak (gaztelera, irakurketa eta idazketa) kultura orokorra zabaltzen laguntzeko ikastaroak, Bigarren Hezkuntza Graduatua lortzeko ikastaroak, euskara eta ingelesa, eta informatikako lehen urratsak eskainiko dira. Bertan izena emateko azkenengo eguna maiatzaren 6a izango da. Interesatuak Pedro Muguruza Ikastetxean eman dezakete izena, asteleheneetik ostiralera arratsaldeko 15:00etatik, 20:00etara. Informazio gehiago nahi izanez gero, 943 74 08 80 telefonora deitu daiteke.

### Tomu Ikastaroa

Lurki Elkarteak antolatuta Helduentzako Tomu Ikastaroa izango da datorren maiatzaren 2an hasita, ekainaren 2ra arte. Ikastaro hau asteleheneetik ostegunera bitartean eskainiko da, arratsaldeko 18:00etatik 21:00etara, Lurki Elkarteak Aita Agirre Plazan daukan lokalean. Interesatuak bertan eman dezakete izena. Informazio gehiago nahi izanez gero, 677 46 63 44 (Jose) telefonora deitu daiteke.

# Inkesta

Espainiako Kongresuak bikote homosexualen arteko ezkontza eskubidea onartu du  
**Ze iritzi daukazu sexu bereko bikoteen arteko ezkontzen gainean?**

**MARITXU EGAÑA**  
Jantokiko begiralea  
47 urte



“Oso ondo iruditzen zait. Norberak bere burua zaindu behar du, eta berak erabakiko du zer egin. Eskubide berberak eduki behar dituzte sexu bereko bikoteek.”

**ISABEL ALBERDI**  
Etxekoandrea  
38 urte



“Oso ondo. Duela urte batzuk oso arraroa zen, baina gaur egun bikote homosexual asko dago, eta heterosexualek dituzten eskubide berberak izan behar dituzte.”

**FLORENCIA LECAT**  
Irakaslea  
28 urte



“Primeran. Elkar maite badute ezkondu eta umeak adoptatzeko eskubidea eduki beharko lukete. Akaso bikote heterosexualak baino guraso hobeak izango dira!”

**AITOR ALVAREZ**  
Ikaslea  
16 urte



“Lege horrekin ados nago. Pertsona guztiak berdinak gara, eta denok eskubide berberak izan behar ditugu. Eliza kontra egoteak ez nau harritzen, zaharkituta dago.”

## [ BAI ala EZ? ]

Erosi edo jaitsi al duzu internetetik disko “Piratarik” ?

**BAI %62**

**EZ %38**

“Bai, erosi izan ditut eta baita internetetik jaitsi ere. Aukera paregabea iruditzen zait bestela erosiko ez nituzkeen diskoak ezagutzeko. Gustatzen bazaizkit, gero orijinalak erosten ditut”

“Ez dut inoiz disko “piratarik” erosi baina ez arrazoi konkretu bate dela-eta. Bestetik, internetetik ez dut sekula abesterik jaitsi baina batez ere ez dakidalako nola egiten den.”

Datorren asterako... *Hezkuntza Sailak bereari eusten dio hizkuntz perfila lortu ez duten irakasleen gatazkan.*  
**Perfila lortu ez dutenekin “eskuzabal” jokatu beharko al luke Jaurlaritzak?**

Bidali SMS bat:

**BARREN** (espazioa) ERANTZUNA

**7744** zenbakira

SMS kostua: 0'90 € + B.E.Z.-a.



Hurrengo hilean bi pertsonentzako zirkuito bat zozketatuko dugu **Kresala hotelean**. Zenbat eta erantzun gehiago, aukera gehiago!  
[www.aisiahoteles.com](http://www.aisiahoteles.com)

# Eskura itzazu opariak!

Zure txartelarekin erosketak ordaindu eta puntuak lortzen joan!



## %5eko deskontua

Maiatzaren 2tik 31ra,  
TXANKAKUA txartelarekin ordainduz gero.

Laguntzailea:



Diru laguntzailea:



**EUSKO JAURLARITZA**  
Industria, Merkataritza eta Turismo Sola





San Bartolome, 18  
Tel.: 943 74 08 49



Roset

Hortensia Maria Rivero

majestic

## CASA ASTIGARRAGA



GYS SPORT

Gazteentzako  
kirol  
moda!

Errosario, 16-18  
Tel.: 943 74 32 68



Kamiseta  
+  
Prakak  
**30€**

## CASA ASTIGARRAGA

GYS SPORT

OUT LESS



Zapatilak  
**30€**

Jausoro Plaza  
Tel.: 943 74 43 86



JAUNARTZERAKO AUKERA PAREGABEAK!





# Ferpi



ARROPA KONPONKETA



Era guztietako konponketak:

- Galtza- barrenak
- Estutu
- Zabaldu
- Kremaierak

San Bartolome, 3 • Tel.: 943 74 38 85



# G & M

Jantzidenda

**muchacha**

**ES**

**custo**  
BARCELONA

**Lois**  
www.loisparis.com

**miss sidecar**

**Paramita**  
Love & Pain ...

San Bartolome, 23 • Tel.: 943 74 46 17



# GARATE

Jantzi - Denda

San Bartolome, 13  
Tel.: 943 74 11 29  
ELGOIBAR

Erribera, 3  
Tel.: 943 86 09 96  
ZUMAIA







# IRIONDO BIROLAK



*Marka onenak!*



Mendi eta kalerako moda

San Frantzisko, 37 - Tel.: 943 74 09 56



San Frantzisko, 43  
Tel.: 943 74 42 53



# karkizano

San Frantzisko, 14  
Tel.: 943 74 05 49







# Baztara

zure haurtxoaren denda  
Antonio Arillaga, 14 • Tel.: 943 74 00 91
















# Sara




**Zapatilak 39,95 €**  
**Zapia 18,95 €**  
**Poltsa 29,90 €**  
**Poltsa 25 €**

**Kamiseta 1 8,95 €**  
**2 kamiseta 12,95 €**






**Bakeroak 44,95 €**  
**Parka 39,95 €**  
**Zapia 24 €**  
**Gerrikoa 21 €**  
**Bolsoa 35 €**






PRIMAAMA

# SKANDAL ♀

San Bartolome, 9 • Tel.: 943 74 35 95



AEROSOLES



# Luvik

oinetakoak

Zabalera bereziak




San Bartolome, 28 ■ Tel.: 943 74 43 45

Callaghan ADAPTATION



Dansi

**S  
P  
E  
C  
I  
A  
L**



Zapatadenda



San Bartolome, 17

Tel.: 943 53 13 50

San Bartolome, 7 • Tel: 943 74 43 41

San Roke, 7 • Tel: 943 74 34 01



*Nigortze*  
OPARIDENDA



# azkue

ARGAZKIAK

Egun bereziak inoiz ez ahazteko!



San Bartolome, 29 • Tel.: 943 74 08 48

## MOMENTUAN inprimatu zure argazki digit@lak

Foto Ostarku DIGIT@L AgfaPhoto

### ARTXIBO DIGITALETIK ARGAZKIRA



Foto Ostarku DIGIT@L AgfaPhoto

### PRODUKTU BEREZIAK



Foto Ostarku DIGIT@L AgfaPhoto

### SKANER ZERBITZUA



...Paper fotografikoan *bizitza guztirako*

# ostarku

Santa Ana, 5 • Tel.: 943 74 06 46

# EIZAGUIRRE

OKINDEGIA

## LANTEGI PROPIOA

Espezialistak artisau ogietan,  
txapata ogietan, opiletan...

"Betiko ogia"



San Frantzisko kalea, 22 behea - Tel. 943 74 04 88





# GOIARA

Lurrindenda

San Bartolome, 23 • Tel.: 943 74 11 33



## Inmobiliaria Studio Siglo XXI

Proiektuak eta erreformak  
Sukalde eta bainurako altzariak  
Pisu eta lonjen salmenta eta alokairua

San Bartolome, 16 behea  
ELGOIBAR  
Tel. 943 742 306

Juan Guisasola, 8 behea  
EIBAR  
Tel. 943 204 264




GUCCI

San Bartolome, 10  
Tel.: 943 74 37 34  
ELGOIBAR



Jose Artetxe, 10  
Tel.: 943 15 75 74  
AZPEITIA



GUCCI

**MULTIOPTICAS**  
**UZURI**

prodesign : denmark  
Egin betaurrekoak zure gustura!



Goiko koloreak



Beheko koloreak



San Frantzisko, 21 ELGOIBAR · Tel.: 943 74 03 59  Ostolaza, 7 DEBA · Tel.: 943 19 21 92

**Ezkongaiak 2005**



Maiatzaren 31ra arte egindako erreserbetan %8rainoko deskontua

**OPARI posibleak**  
**8%ko**  
deskontua  
**Asegurua**



**Viajes Bilbao Express**  
**Bilbao Express Bidaiak**

TEL: 943 74 39 12 - FAXA: 943 74 44 24  
E-MAILA: e1@viajesbilbaoexpress.com  
www.viajesbilbaoexpress.com  
FORUEN ENPARANTZA, 3 • 20870 ELGOIBAR

*Triendo Triendo Triendo Triendo*



Santa Ana 4 eta 6  
Tel.: 943 74 12 34



# Kala

loradenda

San Frantzisko, 24

Tel.: 943 74 45 16

# LA BODEGA ERRETEGIA

ETXEKO BEREZITASUNAK  
Olagarroa - Haragi errea - Kazuelatxoak

EGUNEKO MENUAK  
ematen ditugu

Pedro Muguruza, 22 · Tel. 943 742 500

# Lanbroa

Pintxoak • Bokadiloak • Gosariak • Postreak

**PLATER KONBINATU**etan aukera zabala

Pedro Muguruza, 5  
Tel. 943 74 08 06



**LEIGAR**



**ACTIVA**

*Salmenta eta zerbitzu teknikoa*



Era guztietako elektragailuak.

*Errosario, 8 · Tel. 943 74 00 54*

TVC-LCD- PLASMA • MP3- HOME CINEMA • DVD GRABAGAILUA- DVD



**Softlan**  
analisia & programazioa

Zure etxerako edo lanerako ekipoa, portatila, zerbitzariak, periferikoak, kontsumigarriak eta zerbitzuak.



(Munduko lehen fabrikatzailea)



Antonio Arrillaga, 1

[www.softlan.biz](http://www.softlan.biz)

Tel.: 943 74 81 05



Z A Z P I  
I N F O R M A T I K A



MP3 erreproduzigailua



Nintendo DS



Teklatua xagu kargatzailearekin



Tinta bateragarriak

Pedro Muguruza, 8 behea

Tel./Faxa: 943 74 37 87

# ZELETA BARAZKIAK

NEKAZARITZA TRADIZIONALA eta BABESTUA

- Landareen produkzioa ▪ Laborantza kontrola
- Eskuz eginiko aukeraketa ▪ Banaketa
- Bertako produktuetan erantzunik gertukoena

Ekoizpen prozesuan energia berriztagarriak erabiltzen ditugu



**ZELETA BASERRIA**  
San Migel auzoa ELGOIBAR  
Tef.: 609 35 76 19



San Bartolome, 35  
Tel.: 943 74 03 45

*Egun ahaztezinetarako  
oroigarri bereziak ditugu!*



**IDARRAGA**  
KAFEAK

Olaso, 15 (55-E lokala) • Tel.: 943 74 05 33



## [ GOMENDIOA ]



**Lucia Casquero**

**KEMEN**

Belardenda

## Dieta osasuntsua (I)

**G**ure ohiko elikaduran aldaketaren bat egin nahi badugu, kontuan izan behar da gutxinaka joatea oso garrantzitsua dela, beti ere elikadura aldaketa ez bada gaixotasun larriren batek sortutakoa. Pazientzia eta tolerantzia izatea oso garrantzitsua da.

Aldaketa epe honek 15 egun eta bi hilabete artean irau dezake. Denbora honetan ondoko elikagaiak poliki poliki gutxituko ditugu ohiko jatorduetatik:

Azukrearen ordeztzia, fruktosa edo artuaren, garagarraren edo arrozaren melaza erabili eta egunero kalabaza piska bat jan

Gatza ahalik eta gutxien erabili eta, gainera, itsasoko gatza izatea komeni da.

Goxokia jan beharrean muesli, almendra, intxaur, urrak eta antzeko osagaiekin egindako barritak jan edo, bestela, fruitu lehorrak eta freskoak.

Zerealak, irina eta pasta integralak gomendagarriagoak dira.

Arroza eta ogia, integralak badira, hobe.

Behi-esnea hartzeko modurik onena yogur, mami edo kefir bezala jatea da. Behi-esnea baino, soja, almendra edo arroz-esnea hobe.

Behiaren gazta baino gomendagarriagoak dira ahuntzarena edo soja-gazta edo Tofu delakoa.

Margarinen ordeztzia kakahuete, almendra krema edo sesamo edo algaroba pasta erabili.

## [ OSASUN GIDA ]



### MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

Kemen Belardenda

(Medikuntza naturala, F. de Bach, masaia, makrobiotika, yoga)

San Bartolome, 25 • Tel: 943 74 40 31

Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Sanatana Dharma Yoga Elkarte

Urasandi, 9 • Tel: 943 74 85 93 (Idoia) / 635 71 55 03

Astearte eta ostegunetan: 10-11:30/15-16:30/18-19:30/20-21:30

**Mendaro**

Astelehen eta asteazkenetan: 10-11:30/15-16:30

Astelehen eta ostegunetan: 20:00-21:30

### OPTIKAK

Ikus Optiko-optometriska

San Bartolome, 10 • Tel: 943 74 37 34

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

Uzuri

(optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

San Frantzisko, 21 • Tel: 943 74 03 59

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

### ORTOPEDIAK

Itziar Sarasketa

San Frantzisko, 12 • Tel: 943 74 35 62

Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

### PODOLOGOAK

Iñaki Rivero

San Bartolome, 28 • Tel: 943 74 32 90

Ostegunetan: 9:00-12:00 / 15:00-19:30

Oinberri

Errosario kalea, 25 • Tel: 943 74 17 95

Astearte, ostegun eta ostiraletan: 9:00-13:30 / 15:00-19:30

**Gida honetan agertu nahi baduzu,  
deitu 943 74 37 04ra**



## LETICIA GARCIA MEXIKO [IPARAMERIKA]

### «Mexikarrok beste odol bat daukagu, beroagoak gara»



LETICIA GARCIA RI NABARI ZAIO PARAJE EPELEKOA DELA. ALAITASUNA ETA BIZI POZA GAINEZKA DITU ETA ESALDI BAKOITZA IRRIFAR BATEKIN AMAITZEN DU. MEXIKARRA DA LETICIA, ACAPULCOTIK LAU ORDUTARA DAGOEN SAN NICOLAS HERRIKOA (10.000 BIZTANLE). 32 ESTATUTAN BANATUTA DAGO MEXIKO ETA SAN NICOLAS GUERRERO ESTATUAN DAGO KOKATUTA. HIRU URTE DARAMATZA ELGOIBARREN BIZITZEN BI SEME ETA SENAR ELGOIBARTARRAREKIN.

#### 🚩 Mexikotik Elgoibarrera. Nola iritsi zara?

Ibilbide luze xamarra izan da. Oso gazte nintzela aterata nintzen nire herritik. Mexiko DF, herrialdeko hiriburua, joan nintzen dantza ikastera. Dantza Eskola Nazionalan burutu nituen ikasketak eta dantza mota gehienak ikasi nituen bertan; klasikoa, jazz-a, salsa, merengea, folklorikoa, e.a.

#### 🚩 Tebistako "UPA dance" saioko ikastetxe bat modukoa zen, hortaz?

Bai, antzerako zerbait, jendeak uler dezan. Handik ateratako ikasle batzuek talde bat osatu eta Mexikon zehar birak egiten genituen dantza ikuskizunak eskainiz. Horrela ezagutu nuen Santi, nire senarra izango zena, Tijuanan. Bera Zesta-puntista da eta Tijuana Jai-Alain jokatzeko zuen garai hartan. Handik Estatu Batuetara joan ginen, Orlandora, hain zuzen ere, pilotan jokatzeko deitu baitzioten bertatik. Ia 9 urte egin genituen Orlandon (Florida), senarrak zesta puntan jokatzeko eta nik dantza klaseak emanez.

«Euskaldunok berba  
bakarrik egiten duzue  
afarietan. Dantza noiz?»

#### 🚩 Eta horrela iritsi zinen Elgoibarrera.

Bai. Duela hiru urte lan eskaintza bat sortu zitzaion senarrari hemen. Honez gain, bi semetxo ere baditugu, 4 eta 6 urtekoak, eta nonbaiten finkatzea komeniko litzaikeela iruditu zitzaigun. Izan ere, Orlando ez zen biotako inoren jaioterria, ezta gure kultura transmititzeko tokirik aproposena ere. Estatu Batuar pasaporte dute semeek, baina euskal eta mexikar erara hezi nahi ditugu eta gero beraiek erabaki dezatela. Dauden lekuan egonda ere, bertako ohituren jakitun izan eta behar bezala portatzen jakin dezatela da garrantzitsua.





### 👤 Ezagutzen al zenuen aurrez Elgoibar?

Bai, Orlandon geundenean ia urtero etortzen ginen oportetan hilabete inguru pasatzera edo Mexikora bestela. Semeak ziren nire hasierako kezka. Eskolan gustura dabilta, egin dira hemengo ohituretar.

### 👤 Jarraitzen al duzu dantzarekin?

Bai, duela gutxi hasi berri naiz Kiroldegian ballet klaseak ematen.

### 👤 Mexiko, Orlando, Elgoibar. Hiru bizileku erabat ezberdinak.

Bai, oso ezberdinak dira, baina Orlandoko eta Mexikoko ohiturek antzekotasun gehiago dute elkarrekin. Orlandon erosotasun asko daude bizitzeko, hemen ere kexurik ez dudan arren. Lehen urtean nahiko larri pasa nuen hotzarekin eta eztarria hoztearen ondorioz, nire bizitzan lehen aldiz ahotsik gabe geratu nintzen.

### 👤 Mexikotik Elgoibarrera ekarriko zenukeen zerbait?

Bizi poztasun gehiago, agian. Jendeari pixka bat soltatzea falta zaio. Besteek zer esango edo pentsatuko duten kezkatu daude. Alaitasun gehiago falta da, dantza gehiago... afarietan berba eta berba bakarrik egiten du jendeak; futbolaz, politikaz...eta kitto! Eta dantza noiz? Batzuk dantzarako gogoz daudela somatzen da, baina ez dira ausartzen. Jendeak dantzan hasteagatik mozkortuta ote dauden pentsatuko duen beldur dira, agian. Ni natorren lekuan jendea alaiagoa da eta baita sinpleagoa ere. Ez dizkiote gauzei horrenbeste buelta ematen. Beste odol bat daukagu, beroagoak gara.

### 👤 Jendearen dibertitzeko modua ezberdina al da?

Estatu Batuetan ere ez dut ikusi gazteek hemen duten dibertitzeko modua. Ez zait batere gustatzen. Mexikon ere badaude dantzalekuak, baina ez daukate zerikusirik hemengoekin. Jendea dantzara joaten da han eta dantzan ez dakiten mutilek ez dute ligatzen. Elkarrengana hurbiltzeko modu bat da. Han ez dago tabernaz taberna ibiltzeko ohiturarik, leku batera joaten gara.

### 👤 Mexikoko txoko bat oportetarako?

Ni jaio naizen estatuan Acapulco da tokirik ezagunena, baina horren turistikoa izan gabe hondartza bakarti asko daude, Puerto Escondido esaterako. Kokoak, hondartza bakarti eta eguzkitsuak nahi izanez gero aukera zabala dago eta turismo masiboa ez da oraindik iritsi.



## MEXIKO

- **Hiriburua:** Mexiko DF
- **Azalera:** 1.972.550 km<sup>2</sup>
- **Biztanleria:** 104.907.991
- **Dentsitatea:** 53,18
- **Bizi itzaropena:** 72,3 urte
- **Erlijioa:** %89 katolikoak, %6 protestanteak, %5 bestelakoak
- **Moneta:** Peso mexikarra



*Leticia senarrarekin, semeekin eta aitaginarebarekin.*

## Idazmakinak lehiaketa

Elgoibarko Izarrak antolatzen duen Idazmakinak literatur lehiaketa berrian parte hartu nahi izanez gero, maiatzaren 13a baino lehen entregatu beharko dira lanak Elgoibarko Izarran. Ipuinei dagokienez, hiru maila egongo dira, bakoitzeko gai bat ezarri delarik: DBH 1-2 ("Hiru desio"), DBH 3-4 ("Txateatzen ezagutu dui") eta DBHO ("Nire fantasiak"). Etxegina bertso-paper lehiaketari dagokionez, bi maila daude: DBH 1-2 ("Telebistan irten naiz") eta DBH 3-4 ("Ezin naiz lokartu"). Sariak 45 eta 150 euro bitartekoak dira eta ekainean banatuko dira.



## Zarzuela ikustera Haizearen eskutik

Haizea Emakume Taldeak irteera berezia antolatu du oraingoan. "La verbena de la paloma" zarzuelaren antologia ikustera joango dira maiatzaren 7an, zapatuan, Donostiako Kursaalera. Saioa 20:00etan hasiko da. Madrileko Zarzuelaren Konpainia Lirikoak genero honetako lanik esanguratsuenak taularatuko ditu Kursaalera. Guztira 28 irakaslek osatzen dute orkestra eta abesbatza, dantzari eta aktoreekin elkarlanean arituko dira. Felix San Mateo izango da zuzendaria. Sarrerak eta autobusa jarriko dituzte eskura Haizeakoek. Informazio gehiago behar izanez gero, edo izena emateko, Pitxintxura zuzendu beharko dute interesatuek.

## ERAKUSKETA

# Gemma Monrealen margo erakusketa Kultur Etxeko erakusketa gelan



**G**emma Monreal margolari elgoibartarrak bere koadroekin osatutako erakusketa inauguratuko du gaur, hilak, 29, Kultur Etxeko erakusketa gelan. Azken 2 urteotan margotutako 40 koadro jarriko ditu ikusgai maiatzaren 15era bitartean. 2002an ekarri zituen azkenekoz bere margolanak Gemmak Kultur Etxera. Iaz, Zarautz eta Bartzelonan antolatu zituen erakusketak, besteak beste.

Astelehenetik zapatara bitartean, 19:00etatik 21:00etara eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara izango dira bisita orduak.

Gemma urte mordo darama margogintzan eta gaur egun San Roken daukan estudioan orduak ematen ditu bere sormenari bide emanaz eta errealismotik abiatuz gustuko dituen paisaia ederrak bere erara interpretatuz.

## Gaizka Sarasola eta Iñigo Telletxearen kontzertua



Gaizka Sarasola lesakarrak eta Iñigo Telletxea beratarrak euskal folklore eta elektroakustika doinuez jantziko dute Kultur Etxeko sotoa, gaur, hilak 29, iluntzean (22:30). Sinuosek antolatutako "Sotoko Hotsak" kontzertu sortaren bigarren saioa izango da. Sarasolak "Ixuriak" diskoa atera du berriki Xabier Erkiziarekin batera. Txistua eta atalabala

jotzen ditu lehenbizikoak eta elektroakustikaz arduratu da bigarrena, hau da, mendiko soinu, naturaren hotsak, e.a. grabatzeaz. Iñigo Telletxea hartuko du Erkiziaren lekua gaur gaueko kontzertuan. Xabier Montoyarekin ibilia da eta musikari oso jantzia. Hurrengo kontzertua "Mengele Quartet" taldeak eskainiko du maiatzaren 13an.



MAIATZAREN 15EAN IZANGO DA MENDI ITZULIA

## Mendi Itzulian izena eman daiteke jadanik



**E**ntziako mendiak eta Urbasako parajeak (goiko argazkian) ezagutu zituzten 57 lagunek Morkaikok antolatutako azken mendi irteeran. Aste eurtsua iragan ostean, mendian ibiltzeko eguraldi proposa izan zen joan zen domekan eta nafarroa aldeko paisaia ederretaz gozatzeko aukera izan zuten. Sei orduan osatu zuten ibilbidea.

### Elgoibarko Mendi Itzulia

Maiatzaren 15ean, domekan, ospatuko da Elgoibarko Mendi Itzulia. Morkaikotik adierazi digutenez aurrez

izena ematea komeni da, azken urteetan partaide kopuruak gora egin baitu eta plazak mugatuak baitira. 38 kilometroko mendi bueltan gure herria inguratzen duten gailur esanguratsuenak pasatzen dira eta 250 lagunek parte hartu zuten iaz. Aurrez izena emanez gero 6 euro ordaindu beharko dute bazkideek eta 8 euro bazkide ez direnek. Egunean bertan izena emanez gero, 10 eta 12 euro izango litzateke prezioa. Astelehen eta ostegunetan eman daiteke izena Morkaikoren egoitzan. Goizaldeko 6:00etan izango da irteera Plaza Handitik.



### 500 haurrek parte hartu zuten J.Gurrutxaga Krosean

Elgoibar eta Mendaroko ia 500 haurrek parte hartu zuten Elgoibar Ikastolak antolatutako Jose Gurrutxaga krosean. Kamiseta berdeak banatu zituzten antolatzaileek korrikalarien artean eta hauen kolore berdez jantzi ziren herri

erdialdeko kaleak. Lasterketak iraun zuen bitartean lainoek atseden hartu zuten eta eguzkia lagun izan zuten antxintxikari gazteek. Sei eta hamasei urte bitarteko ikasleak aritu ziren nor baino nor 14 lasterketatan.

## [ EMAITZAK ]

### FUTBOLA

Alaves 1 - Haundi 2 - (3. maila)  
Elgoibar 1 - S. Herrera 1 (Jub.)  
Intxaurren 4 - Elgoibar 1 (1. erreg.)  
Elgoibar 8 - San Patricio 1 (Kad.)  
Elgoibar 1 - Eibar 4 (Inf. A)  
Elgoibar 6 - Antzuola 0 (Neska F-8)  
Sanse 7 - Elgoibar 4 (Inf. B)  
Eibartarrak 4 - Elgoibar 1 (Neska)

### ARETO FUTBOLA

Kenci Elg. 4 - Piti Pascual. 4 (Nazional B)  
Lanbroa 1 - Inter C 8 (1. maila)  
Goierri 6 - Toletxe 3 (Jub.)

### PILOTA

#### Udaberri Txapelketa

Arrasate 11 - Lagunak 18 (Inf.)

#### Debarroko Txapelketa

Lagunak 22 - Arrasateko 8 (Nag)  
Añoña Mendi 20 - Lagunak 22 (Jub.)

### ESKUBALOIA

Pagoaga Sanlo 15 - Zarautz 14 (Kad. neska)  
Cometel Sanlo 20 - Arrate Amaña 15 (Jub neska)  
Tecnomeca Sanlo 14 - Egija 29 (Sen. neska)  
Pneumax Sanlo 24 - Egija 28 (Jub. mut.)  
Sanlo 20 - Bera Bera 19 (Sen. neska)  
ANIT-Softlan Sanlo 26 - Umieta 34 (Sen. mut.)  
UPV 17 - Tecnifuelle 22 (Sen. mut.)

### IGERIKETA

#### Azpeitiko Txapelketa

Ainhoa Agirre 3'21"18 (200 metro libre)  
Eneritz Aizpitarte 1'40"03 (100 metro estiloak)  
Maria Barrenetxea 1'53"12 (100 metro estiloak)

## [ AGENDA ]

### FUTBOLA Mintxetan

Zapatua, 30  
11:00 Elgoibar - Ilintxa (Neska)  
16:30 Haundi - Zamudio (3. maila)  
18:30 Elgoibar - Umieta (1. erreg.)  
Astelehena, 2  
12:00 Elgoibar - Real Sociedad (Inf A)

### ESKU PILOTA, Ikastolan

#### Debarroko Txapelketa

Martitzena, 3  
18:00 Lagunak - Aretxabaleta (Kad.)  
18:45 Lagunak - Oskarbi (Jub.)  
19:30 Lagunak A - Oskarbi (Nag.)  
20:15 Lagunak B - Eskoriatza (Nag.)

### ARETO FUTBOLA Kiroldegian

Zapatua, 30  
13:00 Toletxe - Lauburu (Jub.)

### ESKUBALOIA Kiroldegian

Astelehena, 2  
11:00 Umobitza Sanlo - Añoña (Kad. mut.)  
12:30 Pneumax Sanlo - Urdaneta (Jub. mut.)

# Merkatua

## OHARRA

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.

## [ SALEROSKETAK ]

- Hyundai Coupe autoa salgai. SS-3755-AX. 130.000km. Egoera oso onean. ☎ 943 74 24 26
- Haur aukia salgai, 3 gurpilduna. Poltsa, zakua eta auritakoarekin. Maxi-taxi sattedi-sx. 2004. urtekoa. 325 euro. ☎ 616 69 02 68 (Leire)
- Seat Cordoba Sport 1.900 Tdi salgai. 100 zaldi. Urte bat. ☎ 943 03 02 70
- Andregai soinekoa eta konplementoak salgai. Marfil kolorekoa. 42-44 taila. 480 euro. ☎ 943 08 00 81/615 72 64 30
- Ordenagailurako 17" pantaila salgai. Mitsubishi Diamond Scan. Berria, 4 urte, merke. ☎ 658 62 99 47

## [ BESTERIK ]

- Urasandiko harategi ondoan perikito hori eta berdeak ihes egin zuen apirilaren 26an. Aurkitzen duenak deitu mesedez. ☎ 943 74 08 63
- Katu siamesa aurkitu dugu San Pedroko etxeetan. Marroi iluna, lepo zuria. ☎ 661 03 00 87
- Urezko eraztun bat galdu nuen Ikastolako saskibaloi kantxan zapatuan, joko eskolarretan. ☎ 943 74 42 06 (Mari Karmen)
- Asteazken santu egunean diru kopuru bat aurkitu nuen kalean. ☎ 943 74 32 70

## [ LANA ]

### ESKAERA

- Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketa lanetarako prest: elkartek, portalak, tabernak... ☎ 639 88 20 04
- Emakumea etxeko lanak egiteko prest. ☎ 665 755 211
- Bi neska gazte udan umeak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ 639 43 35 57
- 17 urteko bi neska haurrak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ 616 88 30 97
- Emakumea nagusiak edo umeak zaindu, kamarera edo garbiketa lanetarako prest. ☎ 646 23 51 95
- Soldadorea lanerako prest. Urtebeteko esperientzia. ☎ 943 53 17 45 (19:00-23:00)
- Emakumea gaixoak zaintzeko prest. Gavez edo goizez. Esperientziarekin. ☎ 943 17 28 96 (Mertxe)
- Emakumea adinekoak zaintzeko prest. ☎ 679 23 19 50
- Zaintzaileak bere burua eskaintzen du pertsona nagusiak zaintzeko, erresistentzia edo etxe partikularretan. 10 urteko esperientzia eta informea. ☎ 685 729 790

### ESKAINITZA

- Debako Kresala hotel-jatetxeak lanerako jendea behar du. Departamentu guztiatarako. Interesatuak curriculuma eraman pertsonalki. **Markiegi kalea 6, Deba.**
- Kamareroa behar da. ☎ 943 74 10 12
- Jatetxerako sukaldari laguntzaileak behar da. ☎ 943 12 12 62
- Emakumea behar da umeak zaindu edo etxeko lanak egiteko. Egun solteak. ☎ 687 530 128 (19:00etatik aurrera)
- Emakume edo neska euskalduna behar da haurrak zaintzeko. ☎ 607 560 355

## [ ETXEBIZITZAK ]

### SALMENTA

- Baserria salgai Bergaran. 2 solairu, 30.000 m<sup>2</sup> terrenoa. 465.785 euro. ☎ 615 78 08 42
- Etxea salgai Errosario kalean. Berogailu zentrala, sukaldea, 3 logela, egongela, komuna, despentsa. Bizitzera sartzeko prest. ☎ 943 74 02 68
- Etxea salgai Basarteko lehen ilaran. 68m<sup>2</sup> Dena kanpora. 2 logela, 2 komun, egongela, sukaldea, lehortegia garajea. ☎ 687 23 58 39
- Etxea salgai Pedro Muguruzan. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna, igogailua. ☎ 677 780 680
- Etxe berria salgai Soraluzen. Komunak eta sukaldea amueblatuta. Garajea, entreplanta, txokoa. ☎ 615 77 99 20
- Etxea salgai Basarten. 75m<sup>2</sup> Dena kanpora. 2 logela armairuekin, 2 komun, egongela, sukaldea, garajea. ☎ 652 70 99 15
- Etxea salgai Santa Klaran. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Dena berritua. ☎ 943 74 18 83 (Ignacio)
- Pisua salgai Artetxen (Inñiguez de Karkizano). Berritua, altzariekin, dena kanpora, ganbararekin. ☎ 627 94 12 61
- Etxea salgai Lekeition. 80m<sup>2</sup>. Erdialdean, dena kanpora. Bizitzera sartzeko prest. 3 logela, 2 pisua, 2 sarrera (1 independentea). ☎ 645 73 00 82
- Etxea salgai Santa Ana kalean. Eguzkitsua, 3 logela, sukaldea, komuna eta despentsa. Bizitzera sartzeko moduan. ☎ 636 22 31 42
- Buhardilla salgai San Frantzisko kalean. ☎ 639 01 77 52
- Etxea salgai Mendaron. Herriko Enparantzan. Sukaldea, egongela, 2 komun, 3 logela, trasteroa. ☎ 676 81 46 97
- Etxea salgai Elgoibarren. Amueblatuta, berritua, igogailua eta berogailua. Garajea aukeran. ☎ 645 73 20 90

### ALOKAIRUA

- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibar eta Mendaro artean. ☎ 616 37 03 23
- Apartamentua alokatzen dut Conilen (Cadiz). Igerilekua eta autoa aparkatzeko tokia. ☎ 653 73 34 57

- Donostia erdialdean pisu berria alokatzen da udan. ☎ 653 73 34 57
- Peñiscolan etxea alokatzen da. Opor, asteburu, despedidak... Igerilekua, tenis pista, mini golf... ☎ 964 49 10 22
- Peñiscolan etxea alokatzen da. 5 logela, terraza, itsasora eta mendira begira. ☎ 964 49 10 22
- Apartamentua alokatzen dut Conilen (Cadiz), Bateles hondartzara ondoan. Jantzita. Maiatza, iraila, urria eta hurrengoak. ☎ 680 44 26 68
- Apartamentua alokatzen dut Saloun, Novelty eraikuntzan. Jantzita, aire egoitua, igerilekua, garajea, terraza. Harrera zerbitzua 24 ordu. ☎ 629 98 98 99
- Pisua alokatzen da Elgoibarren. ☎ 943 74 08 64
- Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ 690 70 11 18
- Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ 943 75 15 81
- Logelak alokatzen dira. ☎ 615 00 83 46

## [ PARTIKULARRAK ]

- LHko klase partikularrak ematen dira. ☎ 639 43 35 57
- Ingeles irakaslea behar da. First maila. ☎ 636 44 55 43

## [ GARAJEAK ]

- Aita Agirre Plazan garaje itxia alokatzen da. 90 euro. ☎ 660 795 301
- Garajea alokatzen da J. Mugerza behean. Marraduna. ☎ 943 74 32 88
- Garaje itxia salgai Madalan. 28m<sup>2</sup>. ☎ 646 50 28 66 (arratsaldez)
- Garajea salgai Urasandin. ☎ 943 74 07 26 (21:00-22:00)
- Garaje txikia, marraduna alokatzen da Pedro Muguruzan. Merke. ☎ 943 74 01 13

## [ LOKALAK ]

- Gazte koadrila batek lokala hartuko luke alokairuan. ☎ 669 03 89 57



**1973ko kintoen BAZKARIA**

Lekua: **KILIMON ELKARTEA**  
 Eguna: **MAIATZAK, 1**  
 Izen ematea: "Arrats Pub"ean





**TERAPIA FAMILIARRA**  
(bikote eta banakako terapia)

**PSIKOLOGIA**

**HARREMAN ARAZOAK:**  
bikotearekin, familiarrekin edo hildarekin

**UMEEN ETA NERABEEN ARAZOAK**

**ANTSIAZTATEA**

**DEPRESIOA**

**ESTRESA**

**ELIKADURA ARAZOAK**

**AUTOESTIMA**


Mikrotarapiak: 675 61 78 55    Auzokan Idazleak: 615 70 57 25  
 Albia Baserriko: 615 70 57 25    URSUALE KALEA-1.



## [ZORIONAK]



† Zorionak **Iker** maiatzaren 1ean 6 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat familiako guztien partez.



† Zorionak **Ana** hilaren 28an 6 urte egin zenituelako. Muxu handi bat familiako guztien partez.



† Zorionak **Garazi** maiatzaren 3an urtebete egingo dituzulako. Familiako guztien partez muxu handi bat.



† Zorionak **Julene** maiatzaren 3an 6 urte egingo dituzulako. Arreba Nerea eta lehengusu Ibai eta Markelen partez.



† Zorionak **Ander** maiatzaren 3an 5 urte egingo dituzulako. Gurasoen partez milioi bat muxu gure txikiarentzat!



† Zorionak **Maialen** bihar, apirilak 30, 5 urte beteko dituzulako. Familiako partez!




† Zorionak **Elia Maria** apirilaren 22an urtebete egin zenuelako. Ama eta aiton-amonen partez.



† Zorionak **Araceli** gaur, hilak 29, 10 urte egin dituzulako. Gurasoen eta bereziki, anaia Asierren partez,




† Zorionak **Kenia Reinosa** amaren egunean, maiatzaren 2an, 24 urte egingo dituzulako. Anadelia alaba eta lagunuen partez.



† Zorionak **Nora** gaur, hilak 29, 9 urte egin dituzulako. Familiako guztien partez.



† Zorionak **Ales!** Bi urte dagoeneko gure etxeko txikiak! Laztan handi bat denon partez.



† Zorionak **Andoni "Danonino"** hilaren 28an 4 urte egin zenituelako. Muxu handi bat familiako partez.



† Zorionak **Ane** maiatzaren 2an 2 urte egingo dituzulako. Familiako eta bereziki, Irati eta Julenen partez.



† Zorionak **Txipironaall!** Urte pila bat egin dituzu eta, aurpegiko ximurak ere zaintzeko moduan daukazku neska! je, je. Alaba, kontuz pastelxoekin ta ondo pasa eguna



† Zorionak printsezatxo **Eider** bihar 8 urte egingo dituzulako. Guraso, ahizpa Saray, lehengusu, aiiita, amama eta osaba-izeben partez. Muxu handi bat!



† Zorionak **Nerea** maiatzaren 2an 4 urte beteko dituzulako. Zorionak baita **Amaia eta Leire** maiatzaren 5ean urtebete egingo duzuelako.



† Zorionak zuen urrezko ezteietan. Bihar egingo dituzue 50 urte ezkondu-ta. Ondo pasa eguna, familiako guztien partez.



† Zorionak **bikote**. Ondo-ondo pasa zuen ezkontza eguna eta ondoren datozenak!!! Guk ere oso ondo pasako dugu, je, je, je. Kudrilakoen partez.."



† Zorionak lanire, Iker, Maje eta etxeko guztien partez. Egun polita izan dezazuela bihar, zuen ezkontza egunean.



† Ummmm! ze goxoa zegoen pastela! Mila musu eta 2x2 tirakada belarrietatik!! Ikastolako lagunxoen partez



## [ OKINDEGIA ]



## [ FARMAZIAK ]

29 30	<b>EGUNEZ</b> Yudego Etxeberria (Santa Ana)	<b>GAUEZ</b> Yudego Zabaleta	<b>KANPOKO FARMAZIAK</b> <b>IBÁÑEZ</b> Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 943 75 16 38
	<b>1</b> <b>2</b> <b>3</b> <b>4</b> <b>5</b>	<b>Zabaleta</b> <b>Zabaleta</b> Ibañez Bidasolo Etxeberria (Santa Ana)	
<b>6</b>	Fernandez	Fernandez	<b>ZABALETA</b> Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 943 75 13 84



## [ TELEFONOAK ]

<b>OSASUNA</b>		<b>BESTELAKOAK</b>	
Anbulatorioa	943 03 26 10	Elgoibarko Izarra	943 74 16 26
Larrialdiak	943 46 11 11	Kiroldegia	943 74 44 15
Planning-a	943 74 29 50	Kontsumo Bulegoa	943 74 30 88
Alkoholiko Anonimoak	943 74 03 85	Liburutegia	943 74 35 25
D.Y.A (anbulantzia)	943 46 46 22	Musika Eskola	943 74 21 45
Gurutze Gorría	943 74 38 64	Mintxeta	943 74 43 15
Mendaroko Ospitalea	943 03 28 00	Parrokia	943 74 08 42
Odol Emaileak	943 74 39 36	Postetxea	943 74 15 47
		Gazte Informazioa	943 74 14 61
		KZ gunea	943 74 88 28
<b>UDALA</b>		<b>ADINEKOEN ETXEAK</b>	
Euskara Zerbitzua	943 74 43 66	San Lazaro Egoitza	943 74 02 96
Kultura Zerbitzua	943 74 21 58	Zaharen Biltokia	943 74 05 26
Hirigintza	943 74 43 84	Eguneko Zentroa	943 74 45 65
Epaitegia	943 74 16 30		
Haziena	943 74 44 14	<b>IKASTETXEAK</b>	
Mendaroko Udala	943 03 32 82	Haur Eskola	943 74 21 41
Ongizate zerbitzua	943 74 10 08	HHI (EPA)	943 74 08 80
Udaletxea	943 74 10 50	Herri Eskola	943 74 08 79
Udalzaingoa	943 74 13 94	LM.H.	943 74 41 32
Debemen	943 74 40 67	Institutua	
<b>GARRAIOAK</b>		Arreiturre	943 74 80 19
Eusko Trenbideak	943 74 04 42	Ezenarro (Meka)	943 74 80 19
PESA (Eibar)	902 10 12 10	Ikastola	943 74 44 41
Taxi geltokia	943 74 08 98	Pilar Ikastetxea	943 74 13 31
Bizkaibus	902 222 265		



## [ AUTOBUSAK ]

**ELGOIBAR - DONOSTIA**  
**Astegunak:**  
 7:10, 7:40, 8:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 14:40, 15:00, 15:40, 16:00, 18:40, 19:05, 20:00, 20:40  
**Larunbatak:**  
 7:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 15:00, 18:40, 20:00  
**Igandeak eta jaiegunak:**  
 9:40, 10:30, 13:40, 18:40, 20:00, 20:40  
**Pesa: 902 10 12 10**

**DONOSTIA - ELGOIBAR**  
**Astegunak:**  
 6:15, 7:00, 8:15, 9:30, 12:00, 12:30, 13:30, 14:30, 15:00, 17:30, 18:30, 19:30, 20:45.  
**Larunbatak:**  
 8:15, 12:00, 12:30, 15:00, 17:30, 19:30, 20:45  
**Igandeak eta jaiegunak:**  
 12:30, 17:30, 19:30, 20:45.  
**PESA: 902 10 12 10**

**ELGOIBAR - MENDAROKO OSPITALA**  
**Astegunak:**  
 6:15, 6:40, 6:45, 7:35, 8:15, 8:45... ordu erdika. Azkena; 20:45.  
**Asteburuak eta jaiegunak:**  
 7:15ean hasita, orduka. Azkena; 20:15.  
**EUSKOTREN: 943 74 04 42**

**MENDAROKO OSPITALA - ELGOIBAR**  
**Astegunak:**  
 6:55ean hasita, ordi erdiro. Azkena 21:55.  
**Asteburu eta jaiegunak:**  
 7:55ean hasita, orduka. Azkena, 21:55.  
**EUSKOTREN: 943 74 04 42**

**LARUNBAT GAUEKO ZERBITZUAK**  
**EUSKOTREN: 943 74 04 42**

**ELGOIBAR-DEBA**  
 1:05, 2:35, 4:35, 6:05

**DEBA-ELGOIBAR**  
 12:10, 1:55, 3:40, 5:25

**ELGOIBAR-EIBAR**  
 12:25, 2:10, 3:55, 5:40

**EIBAR-ELGOIBAR**  
 1:00, 2:30, 4:30, 6:00

## [ 29 BARIXAKUA ]

**17:30 KIRIBILKA PROGRAMA**  
 Antolatzailea: Elgoibarko Izarra K.E.

**19:00 GEMMA MONREALEN MARGO ERAKUSKETAREN INAUGURAZIOA**  
 Kultur Etxeko erakusketa gelan  
 Maiatzaren 15era arte

**21:30 PILOTA JAIALDIA**  
 Goñati Pilotalekuan (Mendaro)  
 Portu-Iribar  
 Txurruka-Olo  
 Antxustegi-Etxeberria

**22:30 KONTZERTUA**  
 Taldea: Gaizka Sarasola eta Inigo Telletxea  
 Kultur Etxeko sotoan  
 Sarrera: 3 euro  
 Antolatzailea: Sinuose



S  
I  
N  
O  
P  
S  
I  
A



## [ 2 ASTELEHENA ]

### 18:00 HELDUENTZAKO TORNU IKASTAROA

Antolatzailea: Lurki  
Ekainaren 2ra arte  
Astelehenetik ostegunera arte  
(18:00-21:00)  
Izen ematea: Aita Agirre behe-  
ezk. Telefonoa: 677 466 344 (Jose)

## [ 3 MARTITZENA ]

### 11:00 SANTA KRUTZ MEZA

San Rokeko basilizan  
Meza ostean, salda eta txorizoa  
banatuko dira

## [ 6 BARIXAKUA ]

### 17:30 ANTZERKIA

Kiribilka Programa  
Antzezlan: "Ni arratoi"  
Taldea: "Behi Bi's"  
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra K.E.  
Herriko Antzokian  
2-6 urteko haurrei eta hauen  
gurasoei zuzenduta



## ZINE KARTELDEGIA

### ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN

#### «Descubriendo nunca jamas»

29, barixakua: 22:15  
30, zapatua: 19:30-22:15  
1, domekia: 19:30-22:15  
2, astelehena: 22:15  
«Million dolar baby»  
6, barixakua: 22:15

### EIBAR, UNZAGA

#### «Be cool»

29, barixakua: 19:30-22:15  
30, zapatua: 17:00-19:30-22:30  
1, domekia: 17:00-19:30-22:30  
2, astelehena: 19:30-22:15  
3, martitzena: 19:30-22:15  
4, eguaztena: 19:30-22:15

### EIBAR, RIALTO

#### «Las tortugas tambien vuelan»

29, barixakua: 19:30-22:15  
30, zapatua: 17:00-19:30-22:30  
1, domekia: 17:00-19:30-22:30  
2, astelehena: 19:30-22:15  
3, martitzena: 19:30-22:15  
4, eguaztena: 19:30-22:15

BARRENez ez du gerta litezkeen  
emanaldien aldaketen erantzukizunik.

## «Descubriendo nunca jamas»



Zuzendaria: John Polson  
Antzezleak: Johnny Depp, Kate Winslet, Julie  
Christie.

1904. urteko Londonen girotutako filma. J.M. Barrie idazle eskoziarrak Peter Pan, haur literatura eta zinemako pertsonaiarik ezagunetarikoa, sortzeko ibilbidea kontatzen digu, lehen inspirazio momentutik Duke of York antzokian estreinatua zuten arte. Gau hark Barriren bizitza aldatu zuten eta baita bere ingurukoena ere. Aita hil ostean lau haur hasten dituen ama eder bat izango da idazlearen inspirazio iturri nagusia.

# Atzera begira



**1965** . urte inguruko erretratu zahar hau **Eladio Gorostizak** laga digu. Garai hartan ere, elgoibartarrek Iruñako San Ferminetara joateko zaletasun handia zuten. Jende mordoia joaten zen Iruñara, eta handik etxera bueltan, berakatz mordoia lepotik zintzilik ekartzeko ohitura zegoen. Argazkian agertzen diren lagun hauek ez ziren koadrila berekoak, baina denak Ego-Toki Elkarteko kideak ziren. Argazkia Iruñako kale batean aterata dago etxera itzultzeko unean, eta esan digutenez, oso ondo pasatu zuten. Gogora ditzagun zein diren mutil hauek.

Ezkerretik eskumara: **Jose Bedayo (†)**, **Jose Gabiola**, **Jose Ramon Araolaza**, **Eladio Gorostiza** eta **Martin Urigoitia**.



## ESKERTZA

2005eko apirilaren 24an, 91 urte zituela hil zen Mendaron *Ignacia Zabaleta Elorzaren* sendiak, bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



## ESKERTZA

2005eko apirilaren 26an, 84 urte zituela hil zen *Victor Ansola Arana "Txanbolin"* en emazteak, seme-alabek, anai-arrebek, bilobek eta gainerako sendiak, bihotzez eskertzen dituzte jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.







# ELGOIBARKO BH INSTITUTUA 2005/06 IKASTURTEA

**Elgoibarko Institutua**

Arregitorre, 2

Tel.: 943 74 80 19

E-posta: [bulegoa@elgoibarbh.net](mailto:bulegoa@elgoibarbh.net)

[www.elgoibarbh.net](http://www.elgoibarbh.net)



- ✓ Azken 25 urteetan batxilerra 3000 ikasle inguruk gurekin gainditu dute.
- ✓ Azken 10 urteetan selektibitatea gure ikasleen %97k baino gehiagok gainditu du.
- ✓ Bailara guztiko 550 ikasle ditugu : aukera ederra inguruko gazteak ezagutzeko eta harreman berriak egiteko.
- ✓ Unibertsitaterako zeln goi mailako hezkuntz ziklo formatiboetarako prestakuntza.
- ✓ Batxilerretako ibilbide guztiak garatzeko norberaren interesen arabera ikasbidea eratzuz. (Zientifiko-teknikoa, Osasuna, Teknologikoa, Humanitateak eta Gizarte Zientziak)

**BATXILERREKO AURREMATRIKULA** apirilaren 25etik maiatzaren 6ra

**ZIKLOETAKO AURREMATRIKULA** ekainaren 1etik 8ra

ETOR ZAITEZ ETA EZAGUTU GAITZAZU ZURE ERABAKIA HARTU AURRETIK.

## LA SALLE - AZITAIN IKASTETXEAK

2005-2006 IKASTURTERAKO HONAKOA ESKAINTZEN DU:

### BATXILERGOAK [A eta D]

**GIZARTE ZIENTZIAK  
OSASUN ZIENTZIAK  
ZIENTIFIKO-TEKNIKOA**

**Etengabeko Jarduna**

***Badugu ikasteko leku bat zuretzat!***

[www.lasalle.es/eibarlasalle](http://www.lasalle.es/eibarlasalle)

DEITU 943 121 698 - 943 202 505 Telefonoetara - APIRILAREN 26tik MAIATZAREN 6ra

# AZKEN ETXEBIZITZAK salgai!

Residencial Mirador  
*Santa Maria*

artair

**Neinor** 

NEINOR **Azkoitia**

Julio Urquijo Etorbidea, 10  
20.720 AZKOITIA

 **943 852 411 - 943 317 511**

- 3 logelako etxebizitzak eta
- 4 logelako duplexak behikalde estaliarekin
- Terraza eta lorategi handiak. Garaje itxiak. Leku eguzkitsua hegoaldera begira eta bista panoramikoak.

